HOMOLOGATURIK DAUDEN EUSKALTEGI EDOTA BARNETEGIETAN, HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK EGITEN DITUZTEN BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2022. URTEKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

2022ko uztailaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Bermeon erroldatuta dauden 16 urtetik gorako biztanleen euskara ikastaroak finantzatzeko 2022. urterako diru laguntzen honako deialdia onetsi du:

| | |
|---|---|
| XEDEA | HOMOLOGATURIK DAUDEN EUSKALTEGI EDOTA BARNETEGIETAN, HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK DIRUZ LAGUNTZEA |
| DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA | 4.219,47 € |
| ESKATZAILEAK | Onuradunak 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Euskaltegi homologatuetan euskara ikasten ari diren Bermeon erroldaturiko biztanleei diru laguntzen oinarri zehatzetan azaltzen direnak. |
| ESKARIA EGITEKO EPEA | 2022ko urriaren 3tik 31ra. |
| ESKARIA EGITEKO LEKUA | -Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean (Berhaz bulegoa): Ertzilla kalea 6-8.<br>-Bermeoko Udaleko Egoitza Elektronikoan: https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/sede/index.php?id=erregistro_telematikoa<br>-39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako bestelako lekuetan. |
| EMANGO DEN GEHIENEKO KOPURUA | 300 € ikastaro bakoitzeko.<br>500 € ikastaro guztiengatik |
| OINARRI ARAUTZAILEAK | - 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Euskaltegi homologatuetan euskara ikasten ari diren Bermeon erroldaturiko biztanleei diru laguntzen oinarri zehatzak eta 2020ko urriaren 26an BAOn argitaratutako oinarrien aldaketa<br>- 2022ko ekainaren 21ean BAOn argitaraturiko Berariazko Oinarrien aldaketa, eskariak aurkezteko eta ebazpena jakinarazteko epeei buruzkoa. |

| | |
|---|---|
| EBAZPENAREN EPEA | Bi hileko epea egongo da ebazpena jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. |
| JUSTIFIKAZIOEN EPEA | Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan justifikatutakoaren arabera ebazten da diru laguntza. |
| HELBURUAK<br>BALORAZIO IRIZPIDEAK<br>PROZEDURA | Horiei buruzko argibideak 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Euskaltegi homologatuetan euskara ikasten ari diren Bermeon erroldaturiko biztanleei diru laguntzen oinarri zehatzetan azalduta daude. |
| AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA | -Eskaera-orria beteta<br>- Nortasun Agiriaren fotokopia<br>-Langabeek, lan-bizitzaren ziurtagiria<br>-Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen dutenek laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria<br>-Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria. Barnetegien kasuan, bakarrik ikastorduen matrikulari dagokion kostua<br>- “Ikaslearen ibilbide osoa” agiria (www.habe.euskadi.eus) |